




Deabruaren igela



Zientzialari batzuek inoiz bizi izan den igelik handienaren arrastoak topatu dituzte Madagaskarren.

Madagaskar uharte bat da, eta Indiako Ozeanoan dago, Afrikaren hego-ekialdeko kostaldearen parean. Uharteak kontinentetik bananduta dagoenez, hango landareak eta animaliak oso bereziak dira, baina igel erraldoi hori dagoeneko desagertuta dago. Fosilak aztertuta, duela 65-70 milioi urte bizi izan zela kalkulatu dute zientzialariek.

Horrez gain, fosiletan oinarrituta jakin dute ia metro erdi neurtzen zuela, eta bost kilo inguru pisatzen zuela; hau da, txakurtxiki baten antzera. Hain handia denez, *Beelzebub* deitu diote zientzialariek, «deabruaren igela» gutxi gorabehera.

Igel erraldoiaren familiako kide txikiak daude Hego Amerikan. Izan ere, duela milioika urte Hego Amerika eta Madagaskar (eta baita beste lurralde batzuk ere) elkartuta zeuden, eta gero joan ziren banatzen. Hala ere, zientzialarientzat misterio bat da igelak eta beste animalia batzuk hain antzekoak izatea Hego Amerikan eta Madagaskarren: antzekotasunak aintzat hartuta, badirudi lurralde horiek uste den baino geroago banandu zirela.

Edonola ere, sorginek gustura hartuko zuten halako igel bat, edabe magikoa prestatzeko!

zernola.net

Aukeratu erantzun zuzena.

- 1 Non topatu dituzte igelaren arrastoak?
 - A. Indiako Ozeanoan.
 - B. Madagaskar uhartean.
 - C. Hego Amerikan.
 - D. Afrikaren iparraldeko herrialde batean.

 - 2 Nolakoa zen igela?
 - A. Txakur txiki baten tamainakoa.
 - B. Katu baten tamainakoa.
 - C. Untxi baten tamainakoa.
 - D. Txiki-txikia, Hego Amerikako kideen tamainakoa.

 - 3 Zergatik deitu diote «deabruaren igela»?
 - A. Desagertuta dagoelako.
 - B. Madagaskarren topatu dutelako.
 - C. Oso-oso handia delako.
 - D. Igela aurkitu zuen zientzialaria Beelzebub deitzen delako.

 - 4 Zergatik dira Madagaskarreko animalia batzuk Hego Amerikakoen antzekoak?
 - A. Bata bestetik oso hurbil daudelako.
 - B. Duela milioika urte biak elkartuta zeudelako.
 - C. Jendeak animaliak askatu dituelako.
 - D. Zientzialariek animaliekin esperimentuak egin zituztelako.
- Zer testu mota da irakurgaia?
- A. Ipuina.
 - B. Txistea.
 - C. Albistea.
 - D. Iragarkia.

- 6 Non argitaratu da testua?
- A. Kirol-egunkari batean.
 - B. Zientzia-aldizkari batean.
 - C. Ipuin-bilduma batean.
 - D. Jende ospetsuari buruzko aldizkari batean.
- 7 Zer osagai ditu albisteak?
- A. Izenburua, osagaiak eta jarraibideak.
 - B. Izenburua, sarreratxoa, testua eta irudia edo argazkia.
 - C. Izenburua eta binetak.
 - D. Izenburua, galderak eta erantzunak.
- 8 Zer kontatzen da albisteetan?
- A. Gertakari bat nori, non, noiz, nola eta zergatik jazo zaion.
 - B. Kanean auzokide batek kontatutako txutxu-mutxua.
 - C. Idazleek asmatutako ipuinak.
 - D. Etxeko garbigailua erabiltzeko jarraibideak.
- 9 Non dago Madagaskar?
- A. Hego Amerikako ekialdeko kostaldearen parean.
 - B. Afrikaren iparraldeko kostaldearen parean.
 - C. Afrikaren hego-ekialdeko kostaldearen parean.
 - D. Hego Amerikako mendebaldeko kostaldearen parean.
- 10 Nola izan dute zientzialariek igelaren berri?
- A. Madagaskarreko biztanleek kontatuta.
 - B. Madagaskarren aurkitutako fosilei esker.
 - C. Hego Amerikako igel batzuk ikertuta.
 - D. Egunkarian irakurritako albiste baten bidez.